

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NASUGIAK

67/2024 Mozioa, ekainaren 17koa, Olanarbeko kirol-instalazioetarako sarbidea hobetzeko

Arabako Batzar Nagusi hauetako Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Batzordeak, 2024ko ekainaren 17an egindako bileran, mozio hau onetsi zuen:

67/2024 Mozioa, ekainaren 17koa, Olanarbeko kirol-instalazioetarako sarbidea hobetzeko.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote egin ditzala A-2130 errepidean egin beharreko lanak, aurreikusitako prebentzio neurriak eta neurri aringarriak hobetzeko, bai eta Olanarbeko instalazioetarako sarbidearen, irteeraren eta sarreraren segurtasuna ere, zuzenago eta erosoago egin dadin.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote has dadila, Vitoria-Gasteizko Udalarekin batera, Olanarbeko kirol-instalazioetarako sarbideko bide-segurtasuna hobetzeko behar diren azterlanak egiten, 2025eko ekitaldia bukatu aurretik.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 17a

Lehendakaria

IRMA BASTERRA UGARRIZA